Goi Eskola Politeknikoa

Albisteak

“Doubly Fed Induction Machine: Modeling and Control for Wind Energy Generation” liburuaren itzulpena txinerara.

2015/04/20



“Doubly Fed Induction Machine: Modeling and Control for Wind Energy Generation” (ISBN 978-0-470-76865-5) izenburua duen liburua txinerara itzuli da. Liburuaren egileek, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Gonzalo Abad, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Jesús López eta Luis Marroyo irakasleak eta Varsoviako (Polonia) Unibertsitate Politeknikoko Grzegorz Iwanski irakaslea, diote potentzia elektronikari eta energia eolikoa sortzera bideratutako makina elektrikoei buruzko 430 orrialdeko liburu bat dela.

Liburu honek irakurlea energia eolikoa sortzeko dagoen teknologia elektronikoaren mundura eramaten du. Energia berriztagarrien sektorean interesa daukaten ikasle, ingeniari, ikerlari eta oro har industriako jendeari zuzendua dago.

Liburuaren ingeleseko lehenengo edizioa eta txinerara egin den itzulpena AEBtako John Wiley & Sons editorialak argitaratu ditu.